

## NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA


SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Alfredo Irujo Nafarroako Kontseiluko lehendakari karguaz jabetu da

*Barkos Lehendakariak Foru Komunitateko organo aholku-emaile goren honetan orain irekitzen den jarduera-ziklo berria azpimarratu du*

Osteguna, 2016.eko uztailak 21

Nafarroako Kontseiluko lehendakari berri Alfredo Irujo Andueza Foru Komunitateko organo aholku-emaile gorenazuzentzeko karguaz jabetu da gaur goizean. Nafarroako Errege Artxiboan egin den saioan, Nafarroako Lehendakari Uxue Barkos izan da. Bertan izan dira ere, Gobernuaren aldetik, Eskubide Sozialetako lehendakariorde Miguel Laparra eta Osasun Departamentuko kontseilari Fernando Dominguez.



Alfredo Irujo karguaz jabetzeko ekitaldian.

Bere [agerraldian](#), Barkos Lehendakariak Alfredo Irujo zoriondu egin du, bere betebeharrak "egoki eta distiraz" egin ditzala opa dio, eta "ziur nago hala gertatuko dela, bere lanbide-karrera luze eta oparoa ikusirik".

"Erakunde publikoetan erantzukizunak ditugunok –esan du Barkos Lehendakariak– ondorengo ideia oso argi izan behar dugu beti: egiten dugun lan zehatzetik harago, gure eginkizunetik sortutako pertsona edo erakunde zehatzekin ditugun harreman zuzen eta ohikotik harago, herritar guzien zerbitzura gaudela eta, beraz, gure gizartea osatzen duten gizon eta emakumeen errealitatea ezagutzen ahalegindu behar garela: haien arazoak, itxaropenak, iritziak. Era horretan bakarrik egingo diogu aurre zerbitzu publikoaren gure helburuari modu eraginkor eta zentzuzkoan".

Lehendakaria ziur dago gaurko ekitaldiarekin "Nafarroako Kontseiluaren jardueraren ziklo berri bat hasiko dela, eta ziur naiz aginduta duen zeregin garrantzitsuan sakonduko duela, antolamendu juridikoaren betearazpena zainduz eta erakunde kontsultatzaileek hartutako erabakien bide ona bermatuz; hori guztia, Nafarroako gizartearen aurrerabidearen eta garapenaren alde".

1956an Iruñean sortua, Alfredo Irujo Nafarroako Unibertsitateko Zuzenbidean lizentziatu zen, bulego bat zabalik du Iruñean, eta bertan lan hauek burutzen dituzte bereziki: Administrazio Zuzenbidea, Hirigintza, tokiko erakundeetarako aholkularitza eta Zuzenbide Zibila. Nafarroako Kontseiluko kide da 2006. urtetik, eta Iruñeko Abokatu Elkargoko Gobernu batzordeko kide, 2015. urtetik. Elkargo horretako dekanoa izan da 2003 eta

2015 artean, eta Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiko lehendakariordea 2009tik 2016ra.

Bere [hitzaldian](#), Alfredo Irujok esan du Nafarroako Kontseiluko kideek "beren eskuetan dagoen guztia egingo dutela erakundearen ospeari eusteko, Nafarroaren zerbitzura autonomia, zorroztasun, independentzia eta askatasun osoz lan eginez".

Nafarroako Kontseiluko errelebua Nafarroako Parlamentuak berriki onartutako Foru Legearen aplikaziori men egiten dio, haren funtzionamendua hobetzeko eta bertako kideen kualifikazio teknikoa, neutraltasun politikoa eta inpartzialtasuna bermatzeko. Barkos Lehendakariak azpimarratu duenez, "araudi berri hau aplikatuz Kontseiluan ez da Gobernuak proposatutako kiderik izango, eta guztiak Nafarroako Parlamentuak hautatuko ditu; hala, organo horretan bost kide izango dira hemendik aurrera, ez zazpi orain arte bezala". Horrenbestez, "eta gehiago oso parlamentarioaren exijentziarekin kide guztiak hautatzeko, gerta daitekeen mendekotasun hierarkikoa ekidin nahi da une bakoitzeko Gobernuarekiko, eta askatasuna, aniztasuna eta independentzia bermatu nahi dira ere, ezaugarri honetako organo baten oinarrizko balioak izan behar dutenak", adierazi du Uxue Barkosek.

Lehendakari berriaz gain, Nafarroako Kontseiluko kideak dira ere: Socorro Sotés, María Ángeles Egusquiza, José Iruretagoyena eta Alfonso Zuazu.